

Elgoibar 1348. zenb.
XXXI. urtea - 2024/11/22



Bizi osoa musikagintzan

Juanma Saez

Indarkeria matxista ukatzea haren alde egitea da

Batu gaitzen geldiarazteko


2023. urtean, 6.513 salaketa jaso ziren Euskadin emakumeen aurkako indarkeriagatik.

EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES


azaroak
25 Emakumeen kontrako
Indarkeria Desagerrarazteko
Nazioarteko Eguna

900 840 111 
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU



araba  *álava*
Euzkadiak *Alavako lurraldea*



 **GIPUZKOA**
Euzkadiak *Gipuzkoako lurraldea*



Bueltan da ELGOIBARKO IZARRAREN

TONBOLA

1.000 erregalu baino gehiago...

Aurreko urteetan
TONBOLAK izan duen estimazioak
bultzatuta, **abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera**,
Elgoibarko Izarraren tonbola
jarriko dugu **Kalegoen plazan**.
Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!



*Euskal Herria
Euskaraz kamisetak*



Lurrin saskitxo



*Ene kantak
musika cd-ak*



Txupiterak



*"Xanduli, manduli,
kirikiki..." poltsak*



Koademoak



*Sigma jatetxean
menu bonoa*



Marrazkiak



Zapiak



*Lepokoak eta
belarritakoak*



 643 499 169

 943 741 626

 elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Naia Aizpurua

Itaiako kidea

Eraso matxisten normalizazioaz



"Gizartean normalizatzen ari den kultura matxistaren aurka erantzutea urgentziazkoa da"

Prostituzio sareak Donostian, Gasteizen, Barakaldon eta Tuteran; emakumeen bortxaketak Erandion eta Intxaurren; emakume baten erailketa Errotxapean; indarkeria matxistagatik polizia bat atxilotuta Bilbon; lan baldintza penagarriak eta jabeek gauzaturiko sexu erasoak Getxoko taberna batean. Egunero izaten dugu eraso matxisten berri albistegietan, gure herrian, gure inguruan. Egoera jasanezina bihurtu da.

Dena den, geroz eta zarata gutxiago dago kaleetan, indarkeria matxista kasuek gero eta inpaktu txikiagoa eragiten dute gizartean. Jada ez gaituzte hainbeste harritzen egunero entzuten ditugun albisteek. Bitartean, emakumeon eguneroko ogia da edozein motatako erasoak jasatea, guztiz normalizatuta dugu indarkeria matxista gure bizitzetan.

Bada beste zerbait gehiago haserretzen nauena: matxismoaren aurrean beste alde batera begiratzen duten haiek edo zuzenean matxismoaren existentzia ukatzen dutenak. Horiek erasoak jasan dituzten emakumei bizkarra ematen diete eta erasotzaileen inpunitatea indartzen dute.

Hari beretik, errealitateak haserretzeko eta antolatzeko nahikoa arrazoi ematen badizkigu ere, gizarteko sektore erreazionarioek aitzakia bikaina aurkitu dute emakumeonganako erasoetan haien ideia arrazistak indartzeko. Bai eta indar errepresibo gehiago behar direla justifikatzeko ere (polizia gehiago, arma gehiagorekin). Aldiz, kezkarria iruditzen zait poliziaren baitan dagoen erasotzaile kopurua. Izan ere, udako datuei erreparatuta, erasoen %15 poliziek eginak dira.

Gizartean normalizatzen ari den kultura matxistaren aurka erantzutea urgentziazkoa da. Indarkeria matxistaren normalizazioa, erasotzaileen inpunitatea eta ideia erreazionarioen zabalpena gelditzea ezinbestekoa izango da, eta guk argi daukagu: erasoak salatzen eta matxismoaren aurka antolatzen jarraituko dugu.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jarzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Neuri gertatutakoa

Aste honetan bertan gertatu zaidana kontatu nahi dut. Umeak kolpe bat hartu zuen, eta burua odoletan zeukala eraman nuen anbulatoriora. Arratsaldea zen, baina oraindik zabalik zegoen. Hala ere, pediatrarik ez zegoela esan zidaten harreran, eta Mendarora joateko, larrialdietara. Ez zioten zauria garbitu ere egin! Zorionez, autoa daukat eta lagun bati esan nion Mendarora laguntzeko. Umea odoletan eta negarrez eraman nuen ospitalera, zauriaren lehenengo garbiketa neuk egin ostean. Nola da posible? Erizain batek umea atenditzea nahikoa zen. Ez al zegoen erizainik ere? Badakit murrizketak egon direla eta medikuak falta direla, baina egoera horretan 5 urteko umeari jaramonik ez egitea lotsagarria iruditzen zait.

O.M.

'J'accuse' autoinkulpazioa

Martxoaren 14an, Korrika abiatu zen egunean, giza eskubideen aldeko zenbait aktibistak 36 migratzaileri lagundu zieten Irun (Gipuzkoa) eta Hendaia (Lapurdi) lotzen dituen Santiago zubia zeharkatzen. Handik egun

gutxira, kolektibo horiek beren gain hartu zuten desobedientzia zibileko ekintza hura. Urriaren hasieran, ordea, Frantziako Justiziak ekintza horrengatik deklaratzera deitu zituen kolektibo horietako zazpi kide. Hendaiaiko komisarian sei orduz atxilotuta egon ostean, epaitegian deklaratu zuten, eta, pertsonen trafikoko talde antolatuaeren ustezko delitua egotzita, 2025eko urtarrilaren 28an epaituko dituzte.

Egoera bidegabea denez, auzipetutako aktibistak babesteko kanpaina jarri da martxan: autoinkulpazio kanpaina (*J'accuse-Salatzen dut*) eta urtarrilaren 26an protesta ekintza (11:30ean Irungo Ficobatik Hendaiaira).

Auziperatuen mezua: "Epaitu beharrekoa ez da elkartasuna, ez eta pertsona guztien eskubideen alde ari direnak ere. Immigrazio politika anker eta hiltzaileak, muga arrazista eta bide hauen errudun diren agintari eta legeak dira zigortu behar direnak".

Sinatzen dena hauxe da: "Asko dira migrazio politika ankerren aurka aurpegia ematen duten pertsona konprometituak. Migrazio segurua bermatu beharreko eskubidea delako, *J'accuse* aldarri honekin bat egiten dugunok ere gure aurpegia jarri nahi diogu aldarri honi". *J'accuse* formularioa helbide honetan dago eskuragarri: <http://surl.li/suwpqk>.

A.A.




Elgoibarko 2025erako aurrekontu proposamenari "anbizio eta norabiderik gabea" iritzi dio EH Bilduk



Elgoibarko Udaleko Udal Gobernuak 21,5 milioiko aurrekontu proposamena aurkeztu zuen 2025erako joan zen astean, iazkoa baino %10 txikiagoa, eta proposamen horri "anbiziorik eta norabiderik gabea" iritzi dio EH Bilduk: "EH Bildutik uste dugu lehentasunezkoa dela aurrekontuei norabide eta zentzu bat ematea, benetako plangintza batetik abiatuta, udal eremu ezberdinetan nora, nola eta noiz iritsi nahi dugun zehaztu ahal izateko". EH Bildutik esan dute hainbat ekarpen egin zizkiotela aurrekontu proposemari "kontinuista eta asmo gutxikoa" iruditzen zitzaielako eta "norabide bat" eman nahi ziotelako. EH Bildutik diote udal gobernuaren kudeatzeko moduak balio dezakeela arazo zehatzei erantzun zehatzak emateko, baina ez duela balio hartutako neurriek epe ertain eta luzera izan ditzaketen ondorioak kontuan hartzeko. Elkarteen zako lokal pribatuak erosi beharra aipatu dute adibide gisa: "Azpiegitura publikoak xahutzen joan da, herriaren errealitatea eta beharrak kontuan hartu gabe".

Udal Gobernuaren partetik erantzun positiborik jaso ezean, ez dituztela aurrekontuak babestuko ere aurreratu dute.

Bilduren proposamenak:

Trantsizio ekosoziala:

- Mugikortasunean eta irisgarritasunean eragina duten faktore guztiak kontuan hartuko duen udal-mugikortasuneko epe luzeko plan integral bat osatzea (garraio publikoak, herribusa, bide gorriak, aparkalekuak, lurraren antolamendua...).
- Epe motzean herribusa doan jartzea eta auzo guztietara zabaltzea.
- Babesleku klimatikoak sortzea, egun dauden berdegune urriak hedatu eta mendi bideak mantendu eta berreskuratuz.
- Lur publikoak erosteko partida handitzea.

Etxebizitza politika

- Etxebizitza arazoari sakon aurre egingo dion epe luzeko plan bat egitea, plan kuantifikatua (zenbat etxebizitza publiko berri, zein erregimenetakoak), periodifikatua (urtero zenbat, zenbat urtez) eta legeek ahalbidetzen dituzten aukera guztiak erabiliz (alokairuen mugatzea, etxe hutsen aktibazioa eta abar).

Ekonomia publikoa

- Etxez etxeko zerbitzuaren publikazioaren bideragarritasuna aztertzea.
- Hezkuntza eta kulturarekin lotutako sorkuntza tailerrak (eskultura, argazkia, eskulanak...) zerbitzu publiko gisa eskaintzea.
- Larrialdiko oinarritzko zerbitzuak bermatzea etxerik gabeko edo baztertutako egoeran dauden pertsonei.

Azpiegiturak

- Ur hornidura zerbitzua ez duten landa auzo guztietara eramateko plangintza.
- Komun publiko berriak toki egokietan ezarri eta egoki mantentzen direla ziurtatzea.

Emakume Feministen Asanbladakoren inkesta bete duten emakume guztiek jasan dute noizbait indarkeria matxista

E lgoibarko Emakume Feministen Asanbladak indarkeria matxistaren testigantzak jaso ditu, eta azaroaren 24tik abenduaren 1era jarriko ditu ikusgai Maalan. Testigantza horiez gain, hainbat datu ere bildu ditu eta inkesta bete duten emakumeen %100ek esan dute noizbait indarkeria matxista jasan dutela, eta horietatik %61 gainera, unean bertan gertatzen ari zenaz kontziente ziren. Eraso gehienak begirada lizunak izan dira (%78,6) eta baimenik gabeko musuak jaso izana ere salatu dute %71,4k. 34 lagunek bete dute galdetegia.

Azaroaren 25a indarkeria matxistaren kontrako eguna da eta kontzentrazioa egingo dute astelehenean, Kalegoen plazan. 19:00etan izango da eta segidan manifestazioan irtengo dira herrian zehar. Horrez gain, emakumeentzako autodefentsa tailerra egingo dute bihar Olaizaga kiroldegian. Ongarrirekin lankidetzan, bestalde, *La virgen roja* filma emango dute Herriko Antzokian eguaztenean, eta barikuan, kafe tertulia egingo dute Loredi Salegik gidatuta, Lilan.



Mendaron ere kalera aterako dute bihar indarkeria matxistaren kontrako aldarria. Tratu Onen Aldeko Emakume Taldeak, Mendaroko Gazte Asanbladak eta Debabarrenako Itaiak indarrak batu eta egun osoko egitaraua antolatu dute: Murala margotuko dute 11:30ean frontoi atzeko horma batean, eta eguerdian elkarrekin bazkalduko dute. Arratsalderako zine-forum saioa antolatu dute: *Ellas hablan* filma proiektatuko dute jubilatuen ondoko lokalean.

Trenak garraio-eredu inklusiboa eraikitzeke duen eginkizuna azpimarratu dute

Trenaren aldeko Borroka Astearen barruan Altzolako tren geltokiaren aldeko ekitaldia egin zuten zapatuan, eta hainbat erakundetako ordezkariak bildu ziren, garraio publikoari eta bereziki, trenari buruz hausnartzeko eta eztabaidatzeko. *Garraio publiko, sozial eta iraunkorraren alde. Lurraldea egituratu eta planeta hozten duen tren baten alde* lelopean, gizarte talde desberdinetako 40 bat lagunek hartu zuten parte. Besteak beste, Klimaren aldeko Aliantza, Tren Publiko, Sozial eta Jasangarriaren aldeko Estatuko Koordinakundea, Sagarrak Ekologista Taldea, Ekologistak Martxan, S. F. Intersindical, CCOO. eta CGT. Hizlariak, trenbideak karbono-isuriari murrizketan duen eragin positiboa, udalerrak lotzeko duen gaitasuna eta garraio-eredu inklusibo bat eraikitzeke duen funtsezko eginkizuna nabarmendu zituzten, besteak beste.



Bertaratutakoek Altzolako tren geltokiaren egoera bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten. Topaketaren bidez agerian utzi zuten altzolatarrak gero eta kezka handiagoa dutela, "funtsezko azpiegiturak" desagertzeko arriskuan direlako. Gaztañerre ospakizunarekin amaitu zuten eguna, eta umeentzako puzgarri bat ere egin zen.

2025eko Kilometroak jaiaren leloa, irudia eta helburuak aurkeztuko dituzte gaur zortzi, Maalan



Elgoibar Ikastolak antolatuko du datorren urtean Gipuzkoako ikastolen aldeko Kilometroak jaia, eta gaur zortzi, azaroaren 29an, aurkeztuko dituzte leloa, irudia eta helburu nagusiak, Maalan egingo duten ekitaldi publikoan. 18:30ean hasiko dute aurkezpen-ekitaldia, eta ohiko hitzartzeaz gain, bertsoak eta zuzeneko musika ere izango direla aurreratu dute antolatzaileek. 2025eko urriaren 5ean ospatuko da Kilometroak jaia Elgoibarren.

Elgoibarko Udalak 7.000 euro emango ditu kultur eta arte sorkuntza bultzatzeko hiru proiektutarako

Sigmako probalekuko hamazazpi zutabe apaintzeko Egur Tailerraren proiektua, Txoteko Ezpata musika taldeak *Ilunpean jai duzu* diskoa argitaratzeko proiektua eta Juan Mugertza krosean oinarritutako pintura bat sortzeko Ibon Serranok duen proiektua dira Elgoibarko Udalak diruz lagunduko dituenak. 5.400 euro jasoko ditu Egur Tailerrak, 1.000 euro Txoteko Ezpata taldeak eta 600 euro Ibon Serranok.

Bisita gidatua eta 'Altzolatarrak San Joan bataiatzailearen parrokiaren testuinguruan' hitzaldia, hilaren 23an



Ekimen handiz ari dira lanean Altzolako auzo elkartekoak eta azaroaren 23rako bisita gidatua eta hitzaldia antolatu dituzte, Altzolatarrak *San Joan bataiatzailearen parrokiaren testuinguruan* izenburukoa. 11:00etan hasiko dute bisita eta ondorenerako mokadua ere lotu dute. Informazio gehiago jasotzeko nahiz izena emateko 635 753447 telefono zenbakira deitu behar da.

Ehun ume inguru elkartu ziren domekan Mendaron 'Go!azen'-en lehen kapitulua elkarrekin ikusteko



EITBk gaur estreinatzeaz duen *Go!azen* telesailaren hamaikagarren denboraldiko lehen kapitulua aurrez ikusteko aukera izan zuten joan zen domekan Mendaron, UEMak Euskal Telebistarekin sinatu duen hitzarmen bati esker. Domekan udaletxeko pantailan ematekoa zuten kapitulu bera barikuan Makusi plataforman ikusteko aukera izan bazuten ere askok, jendetza handia batu zen udaletxeko harrerara domekan, elkarrekin pantaila handian ikusteko. Arno guraso elkartekoak arduratu ziren emanaldiaz eta gozatu zuten emanaldira batu ziren umeek, ehun batek.

28 etxebizitza publiko eraikiko dituzte Elgoibarren

Elgoibarren etxebizitza publikoa sustatzeko hitzarmena sinatu dute Udalak eta Jaurilaritzak. Etxebizitzako sailburuorde Miguel de los Toyos eta Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitekturako zuzendari Pablo Garcia Astrainek Maialen Gurrutxaga alkatearekin egindako bileran. Agindu dute 14 zuzkidura-bizitoki egingo dituztela anbulatorioko eraikinean gazteentzat, eta beste 14ak alokairu babestuko etxebizitzak izango direla Eulogio Estartan. Udaletik esan dute ekimen honek profil ezberdineko bizilagunek etxebizitza eskuratzeko dituzten premiei erantzun nahi die, baina batez ere gazteen beharrei, haiek direlako emantzipatzeko zailtasun handienak dituztenak.

EH Bildurentzat albiste ona, baina ez nahikoa

Etxebizitza politika publikoaren inguruan urteetan Elgoibarren ezer egin gabe egon ostean, EH Bilduk esan du albiste ona dela hau herriarentzat, baina hala ere, ez dela nahikoa. Etxebizitzaren arazoari "sakon" aurre egingo dion epe luzerako plan kuantifikatua eta periodifikatua eskatzen dute, legeek ahalbidetzen dituzten aukera guztiak erabiliz. EH Bildurentzat, herriko etxebizitza politika sendo baten helburua merkatuan eragitea da Elgoibarko prezioak behera bultzatzu, etxebizitzarako eskubidea sustatzeko.

HAPOan egindako aldaketa puntual bat azaltzeko bilera, Mendaron

Hiri-Antolamendurako plan orokorrean aldaketa puntuala egitea onartu zuten Mendaron azken osoko bilkuran, Garagartza kaleko 13. zenbakiko eraikina, Txoperranekoa, 15. zenbakiko lursailetik gertu dagoen lurretara aldatzeko. Urak handi etorri direnetan beti harrapatu du urak eraikin hori eta izaten dituen kalteengatik erabaki dute aldaketa egitea. Espediente jendaurrean jarri du orain Udalak eta herritarrek 45 egun natural izango dituzte beren iradokizunak egiteko. Era berean, azaroaren 26an, bilera informatibo bat egingo dute Udalean, 18:00etan.

Zuhaitz landatzea antolatu du Baso Biziak taldeak biharko

Elgoibarko Baso Biziak taldeak zuhaitz landatzea antolatu du biharko. Muskuritzu magalean egingo dute, Lurgaia fundazioarekin batera, bertako lur jabearekin duten zaintza akordioari esker. 09:00etan batuko dira Mintxetan. Mendiko botak eta arropa erosoak eramateko gomendioa egin dute, eta baita ura eta jateko zerbait ere. Lan tresnak eta eskularruak beraiek jarriko dituzte. Antolatzaileek izena emateko eskatu dute posta elektronikoki bidez, izen-abizenak, adina eta herria zehaztuz (info@elgoibarkobasobiziak.org edo info@lurgaia.org).

Elikagai bilketa egingo dute gaur eta bihar Elgoibarren



Gipuzkoako Elikagaien Bankuak janari bilketa egingo du gaur eta bihar, eta Elgoibarko Udalak eta Gurutze Gorriak bat egin dute ekimenarekin. Eroski, BM, Mercadona eta Alcampok hartuko dute parte, eta elikagaiak nahiz bonuak emateko aukera egongo da. Establezimendu bakoitzean txaleko horiak jantzita egongo dira boluntarioak, herritarrei laguntzeko.

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur Mendaron

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur Mendaroko Ikastolan, 17:00etatik 20:40ra. Txanda hartzeko 634 073 498 telefonora deitu behar da.

JUANMA SAEZ

Musikaria

✍️ Ainhoa Andonegi

Musikarien Eguna dugu gaur, Santa Zezilia eguna. Egun berezia izaten da musikarientzat, eta egun horren bueltan hainbat musika ikuskizun antolatu dituzte Elgoibarren eta Mendaron. Bihar, esaterako, Udal Musika Bandak Santa Zeziliako kontzertua emango du Herriko Antzokian. Kontzertu berezia izango da musikarientzat, eguna bera ere berezia delako. Juanma Saez (Elgoibar, 1964) izango da musikari horietako bat. 5-6 urte zituela hasi zen musika ikasten, eta berehala konturatu zen musikari izan nahi zuela. Musika du pasio eta ogibide. Musika irakasle izan da eta Ertzaintzaren bandako tronboi joleetako bat izateaz gain, zuzendari lanetan ere badihardu azken urteetan. Elgoibarko bandako zuzendariordea da eta azkenaldian arreglista lanak ere egiten ditu. Abenduan hartuko du erretiroa, baina oraindik ez dauka musika lagatzeko asmorik.

“Ogibidea baino gehiago, bizitzeko modua da musika niretzat”

Noiz eta nola hasi zinen musika ikasten?

5-6 urte nituela hasi nintzen musika ikasten Jose Ballerekin, eta gerora Txomin Mujikarekin ere makina bat urte egin nituen. Nik argi neukan musika ikasi nahi nuela, eta banekien musika nire bizitzaren parte izango zela. Kataluniako orkestra batean ere egon nintzen urtebetez Bittor Alberdi *Patxillorekin*. Bera aurretik iritsi zen hara, eta bere bitartez sartu nintzen ni. COU egiten ari nintzen institutuan, baina nik banekien ez nuela ohiko ikasketekin jarraituko; musika zen nirea, eta Bartzelonarako bidea hartu nuen. Handik bueltan, Donostiako kontserbatorioan sartu nintzen, eta goi mailako musika ikasketak



egin nituen. 18 bat urte izango nituen orduan. Ikasketak Gasteizen bukatu nituen. Zorionez gurasoek errespetatu eta babestu zuten nire erabakia. Musikari izateak diziplina handia eskatzen du, eta ni gaztetan diziplinatua ez beste gutzia nintzen. Musikak bide zuzena hartzen lagundu zidan.

Gaur egun umeeak instrumentuak probatzeko aukera izaten dute musika eskolan. Zuk nola aukeratu zenuen instrumentua?

Garai hartan ez zuen norberak aukeratzeko normalean, eta ohikoena izaten zen bandan falta zen instrumentua jotzen hastea. Ni tuba jotzen hasi nintzen, bandan eta txaranga instrumentu

hura falta zelako. Tuba instrumentu handia da eta ni altua nintzenez, hura eman zidaten. Hiruzpalau urtez aritu nintzen tubarekin, eta gerora tronboia aukeratu nuen.

Ibilbide luzea egin duzu musikan, eta hamaika bandatan ibilitakoa zara han eta hemen kontzertuak ematen.

Bai, musikari esker asko bidaiatu dut, eta agian hori izan da musikak erakutsi didan aurpegi txarrena. Gizon altua naiz eta autobusez bidaiatzea oso gogorra egiten zitzaidan. Ertzaintzaren bandarekin Sevillako Expora joan ginen jotzera eta bidaia oso-oso txarra izan zen. Itzulerakoa hegazkinez egin nuen.

Ertzaintzako bandan sartu zinen eta datorren hilean jubilatuko zara.

Gasteizen ikasten ari nintzela sartu nintzen Ertzaintzaren bandan, eta bertan jarraitzen dut oraindik. Datorren hilean hartuko dut erretiroa, baina hala ere, jarraituko dut Elgoibarko bandan. Ogibidea baino gehiago, musika bizitzeko modua da niretzat, eta hau betirako da. Ertzaintzaren banda desagertzeaz dago, oso musikari gutxi geratzen gara, eta Ertzaintzak ez dauka banda indartzeko asmorik. 2007tik 2013ra eszedentzia hartuta Gasteizko Udalean egon nintzen lanean, baina murritzaketak egin zituzten eta nire postua kendu egin zuten. Ertzaintzaren bandara itzuli nintzenez gainbeheran sartuta zegoen. Zuzendariak 2015ean baja hartu zuen eta orduan ni nabil lan horretan. Elgoibarko Udal Musika Bandan zuzendari ordea naiz eta Gorka Mujikaren beharretara nago. Bilboko Udaleko musika bandan lan egiten du berak eta batzuetan ezin izaten duenez Elgoibarko musika banda zuzendu, neuk ordezkatzen dut.

Bandan tronboia jotzea ala zuzentzea gustatzen zaizu gehiago?

Musikarekin zerikusia daukan guztia gustatzen zait, dantzan egitea izan ezik! Armonia ikasketak ere egin nituen, eta kantuen arregloak ere egiten ditut. Konposatzea ere gustatzen zait eta talde askorentzako lanak egin ditut. Gasteizko eta Bilboko bandentzako konponketak egin ditut, Euskadiko orkestrarentzat ere bai, eta Elgoibarko bandarekin egiten ditugun emanaldi berezietako pieza gehienak ere neuk prestatzen ditut. Une honetan Durangaldeko orfeoarentzako proiektu

"Adin desberdinetako jendea dago bandan, baina denok lagunak gara eta hori igarri egiten da, bai entseguetan eta baita emanaldietan ere"

bat daukat esku artean. Fernando Urain Debako bandako zuzendaria da Durangoko orfeoiko zuzendaria, eta aspalditik ezagutzen dugu elkar. 83tik 85era musika eskolak eman nituen Deban eta nire ikaslea izan zen. Arrasaten ere eman nituen eskolak, eta gerora Eltziegion eta Labastidan ere bai. Baina irakasle izatea gogorra dela iruditzen zait, eta nahiago ditut beste lan batzuk.

Santa Zezilia eguna da gaur, eta bihar kontzertua emango du Elgoibarko Udal Musika Bandak. Egun berezia da zuretzat?

Bai, berezia izaten da, eta aurten gainera zapatuan emango dugu kontzertua. Beti egin izan dugu igandean, eta aurten desberdina izango da. Kontzertu ostean bazkaltzera joango gara guztiok elkarrekin. Giro oso ona daukagu bandan eta oso ondo pasatzen dugu.

Elgoibarko musika bandak arrakasta handia dauka, eta ikusle asko biltzen ditu, bai Herriko Antzokian eta bai plazan ere. Zein da horren sekretua?

Gipuzkoako eta Bizkaiko hamaika bandarekin jotzea tokatu izan zait urte hauetan guztietan, eta egia da denetan topatu dudala giro ona, baina Elgoibarko bandako kideen artean dagoena sekulakoa da. Adin desberdinetako jendea gaude, baina denok gara lagunak eta hori igarri egiten da, bai entseguetan eta baita emanaldietan ere. Musikarien jarrera bikaina da, eta beti gaude gauza berriak egiteko prest. Musika bandak berritzen jakin du, eboluzionatu egin dugu eta publiko zabalagoarengana iristen asmatu dugu. Antzokitik plazara irtetearekin bete-betea asmatu dugu. Azken urteetan kontzertu bereziak eman ditugu, eta oso ondo funtzionatu dute. Aurten Labastidako bandarekin ere egin dugu emanaldi berezi bat. Alex Sarduik Gatibuko kanta batzuk abestu zituen eta Ion Gurrutxagak Queen taldearenak. Hura ere oso ondo irten zen, eta ikusleak harrিতuta geratu ziren.



*"Elgoibarko herria musika bandaz
harro dagoen modu berean,
musika banda ere harro dago
bere publikoaz"*

Datorren urterako Gozategiren atzetik nabil. Zumarragako bandaren 150. urteurrenerako eskatu zidaten Gozategiren abesti batzuen arregloak egitea bandarako. 2019an egin genuen eta oso ondo geratu zen. Orduetik nabil Elgoibarren ere egin nahian, baina Gozategi oraindik plazak betetzen ari da, eta ez dakit formato hau beraien agendan sartzen den. Gustatzen zait konponketak egitea, konposizioaren lana interesgarria da, eta emaitza oso onak ematen ditu. Azken lana Gora Musikakoekin egin dudana izan da. Abenduaren 1ean estreinatzeak dira ikuskizuna Bilboko Euskalduna jauregian, baina aurretik Elgoibarren egin genuen eta polita izan zen.

Elgoibarrek badauka musikarako zaletasuna eta musika eskaintza zabala dago herrian. Alde horretatik, herri aberatsa dela esango zenuke?

Bai, oso aberatsa da Elgoibar. Musikarako joera handia dago, eta iruditzen zait Elgoibarko jendeak lotura handia duela herriarekiko. Elgoibarko jendeari gustatzen zaio herriarentzako lan egitea eta bakoitzak daukan onena jartzen du herriari gauzak eskaintzeko. Beste herri batzuetan ez dut hori ikusten. Ni bandan nago, eta bereziki bandarena ezagutzen dut, baina bandaz aparte ere, eskaintza oso zabala dago herrian, gai desberdinetan. Bakoitzak bere artea besteen eskura jartzea gauza handia da. Hori guztia aberastasuna da, eta herriak funtzionatu egiten du.

Mauxitxa txarangak ere oso ondo funtzionatzen du. Ez dauka bandarekin zerikusirik, baina funtzio

garrantzitsua betetzen du herrian. Ni 20 bat urtez edo ibili nintzen Mauxitxan, eta oso ondo pasatzen genuen. Mauxitxa txaranga oso ondo antolatuta dago, serio hartzen dituzte entseguak eta lan ona egiten dute. Gure garaian desberdina zen; gaur egun askoz profesionalagoak dira txarangak.

Jubilazioaren atarian zaude, baina erretiroa hartzeko asmorik gabe.

Hala da. 5-6 urte nituenetik nabil musikan eta hau betirako da. Aurrerantzean, baina, lasaiago hartuko dut, ezin zaio beti erritmo berari eutsi eta. Musikariaren bizimodua gogorra da. Gatibuk ere taldea desegitea erabaki du orain, adinean aurrera doazelako eta bizitzako une batean familiak bestelako pisu bat hartzen duelako. Ezin da gaztetako erritmoan segi. Ni ez naiz damutzen ibilbide hau aukeratu izanaz, eta musikaz gozatzen jarraitzeko asmoa daukat. Elgoibarko bandan oso gustura nago, publiko fidela daukagu, eta niretzako kontzertuak ematea gozamina da. Elgoibarko herria bandaz harro dagoen modu berean, banda ere harro dago bere publikoaz. Musikariak azken batean publikoa gozarazteko gaude, eta hori lortzen dugun bitartean, hemen jarraituko dugu, musika eta artea zabaltzen.

Musikalean

Santa Zezilia egunaren harira Musikalean programa antolatuta du Inazio Bereziartua musika Eskolak eta hainbat musika ekintza egin dituzte astean zehar, batzuk musika eskolan bertan eta besteak, kalean. Talde instrumentalen eta koruko ikasleen kontzertuak izan dituzte auditoriumean, eta txarangakoak kalea irten ziren atzo. Mendaron ere kalera irten ziren martitzenean trikitixa ikasleak, eta gaur Bizi Poza txarangakoek alaituko dituzte kaleak.

Bihar, bestalde, Elgoibarko Udala Musika Bandak kontzertua emango du Herriko Antzokian, 13:00etan. (Egitaraua agendan)





Goian: Leire Perez, Zigor Arenillas eta Idoia Narbaiza. Behean, Urtzi Alkorta, Nekane Lopez, Irantzu Urkia eta Miriam Ruiz.

ALTXA BURUA TALDEA SORTU DUTE MENDARON

  Ainara Argoitia

Pantailen gehiegizko erabilerarekin kezkatuta dauden gurasoak elkartzen ari dira han-hemen, besteak beste seme-alabei Interneterako sarbidea duten sakelako telefono adimendunak ematea atzeratzeko eta hezkuntzaren digitalizazioaz gogoeta egiteko, eta Mendaron ere Altxa Burua taldea sortu du guraso talde batek, Elgoibar Amatau Mobila taldearen bide beretik. Elgoibarren, urtebete bada taldea sortu zutela, eta eginahal betean ari dira, Udalarekin eta herriko beste zenbait eragilerekin lankidetzan.

Altxa Burua taldea sortu du Mendaron teknologiaren gehiegizko erabilerarekin kezkatuta dagoen guraso talde batek, izen bereko Gipuzkoako sarearen baitan. Pantailen erabilera goiztiarrak haurren garapen fisiko, emozional eta intelektualean dituen ondorioekin daude kezkatuta, eta elkarri laguntzeko eta indarra egiteko batu dira Altxa Burua sarera. Hiruzpalau helburu zehaztu dituzte: seme-alabei Interneterako sarrera duten gailuak ematea atzeratzea; eskolak sakelako telefonorik gabeko arnagune bihurtzea; helduak eta seme-alabak erabilera egokian trebatzea, etxeko helduak eredu izanda; eta kontzientziarioa sustatzea. Helburuak nagusiki horiek izanda ere, hezkuntzaren digitalizazioarekin ere kezkatuta

daudela aitortu dute. Ikusten dute seme-alabak teknologia berrietan alfabetatzeko eta trebatzeko beharra, tresna baliagarriak izan daitezkeelako ez ezik, gizarte digital batean bizi garelako eta belaunaldi berriak erabiltzaile kontziente izateko hezi behar direlako, baina hori nola egiten ari den horrek kezkatzen ditu.

Beste askotan moduan, kezka batek elkartu ditu. Sakelako telefono eskean hasita zituzten seme-alabak etxean Mendaroko Altxa Buruako talde eragilean daudenetako batzuek, eta inguruko etxeetan hasitako gerra hori aurreikus zezaketen epe laburrean beste zenbaitek. Baziren baita ere seme-alabei telefono adimenduna nahi baino azkarrago ematera behartuta sentitu ziren gurasoak, edo besterik

gabe, gaiak zer pentsatua ematen zietenak. Ezinegon horrek ekarri zituen haietako batzuk Elgoibarrera, Amatau Mobilak elkarteak eskatuta, Elgoibarko Udalak otsailean antolatu zuen Telmo Lazkano irakasle eta dibulgatzailearen hitzaldira (Zumaia, 1994). Gero, maiatzean, Amatau Mobila taldekoek egin zuten hausnarketa-bileran ere parte hartu zuten beste zenbaitek eta bilera hartan entzundakoek piztu zuten haiengan Mendaron ere indarrak batzeko gogoia. LH2ko guraso talde batek jarri zuen lehen hazia. Bildu ziren dozenatik gora lagun, hitz egin zuten luze eta zabal nork bere esperientziatik, azaleratu zituzten kezka eta behar askotarikoak, eta bi ondorio nagusi atera zituzten: derrigorra zela hausnarketa indibidualetik kolektibora salto egitea eta gizartea formatzea, eta helburua teknologiaren erabilera egokia bultzatzea izanik, talde hura ezin zela, inolaz ere, seme-

alabei eskuko telefonoa eman ez zietenentzako eskusiboa izan. Beste modu batera esanda, ez zela inor epaitzeko taldea izango hura, baizik eta teknologia berriekin harreman osasuntsua izatea nahi luketen guztiak formatzeko eta belaunaldi berrien ongizatea ziurtatzeko lan egingo zuena.

Familietan kezka zenbaterainokoa zen neurtzeko, eskolako familien artean zabaltzeko inkesta prestatu zuten estreinako bilera hartan. Guraso elkartearen bidez zabaldu zuten inkesta familietara, eta 70 ikasleren familiek erantzun zuten (ikasleen %38). Erantzun zuten guztiak kezkatuta agertu ziren haurrek egin dezaketen sakelako telefonoaren erabileraz, eta guraso gisa zerbait egiteko beharra sentitzen ote zuten galderari 'bai' erantzun zioten guztiak. Horietatik %96, gainera, prest agertu ziren, guraso ekimen bateratu batean parte hartzeko.

Kezkarik eragiten al dizu gure haurrek mugikorrarekin egin dezaketen erabilerak?

■ Bai ■ Ez




Mugikorraren erabileraren inguruan guraso bezala zerbait egin beharko genukeela uste duzu?

■ Bai ■ Ez



Prest egongo al zinateke mugikorraren erabileraren inguruan guraso ekimen bateratu batean parte hartzeko?

■ Bai ■ Ez



Eta halaxe, inkestaren emaitzek hauspotuta sortu zuten talde eragilea izango zena. Irailean egin zuten lehenengo bilera eta zehaztu zuten bide-orria izango zutena, inguruko herrietan egiten ari zirena erreferentziatzat hartuta. Hasteko, herriko guraso elkartearen babes bilatu zuten, eta behin hori ziurtatuta, elkarrekin egin zuten Altza Burua Gipuzkoatik abiatutako sinadura kanpainarekin bat egiteko deia. Kanpaina hartan Jaurilaritzari eskatzen zioten sortzeko beharrezkoa zen marko juridikoa eskolak sakelako telefonorik gabeko arnasmune bihurtzeko eta sustatzeko

kontzientiaziorako kanpainak, "zorroztasunez azalazteko" telefono adimendunek adingabeen osasunean izaten ari diren eragin kaltegarria. Eta horixe izan zen beren buruei jarri zieten erronka ere: kontzientiazioan eragitea.

MENDAROKO UDALAREN ETA ESKOLAREN BABESA

Udalean eta eskolan aurkeztu dute taldea eta elkarlanerako gertu agertu zaizkie herriko bi eragile nagusiak. Eta orain, Udalarekin elkarlanean, *Mugikorraren auzia* izeneko formakuntza saioa iragarri dute hilaren 27-28rako (euskaraz) eta

abenduaren 9-10erako (gaztelaniaz), eta aurreratu dute saio horiek probestuko dituztela herritarrei Altxa Burua Mendaro taldea aurkezteko.

Mugikorraren formazio integrala: Zer dugu benetan esku artean? izango da lehenengo saioaren izenburua, eta *Arrisku eta irtenbideak: Nola eraiki dezakegu harreman osasuntsu bat?* bigarrenarena, eta formato hori bera errepikatuko dute gero abenduaren 9an eta 10ean, baina gaztelaniaz. Lau saioak udaletxeko udalbatza aretoan izango dira, 18:00etan hasita, eta antolatzaileek nabarmendu dute haur eta nerabeen eredu izan daitekeen edonorentzako formakuntza dela. Horregatik, herriko eragile guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera, ezinbesteko ikusten dutelako lanketa herri mailara zabaltzea.

Lehenengo saioa teorikoa izango da, eta bigarrena, praktikoa. Saio teorikoan marko orokorra azalduko du Lazkanok eta honako galdera hauei erantzungo die, besteak beste: Zein da sare sozialen benetako negozioa eta beren alde ezkutua? Nola lortzen dute gu pantailara itsatsita mantentzea? Zein dira haien teknika teknologiko eta psikologiko nagusiak horretarako, eta zeintzuk haien ondorioak? Nola funtzionatzen du nerabeen garunaren aparatu emozionalak eta zeintzuk dira erabilera goiztiar eta desegoki baten ondorioak?. Saio praktikoan, berriz, nerabeek telefonoarekin harreman osasuntsu bat izateko eskura ditugun tresnez, mugez eta abarrez arituko da.

Altxa Burua Mendaro taldeak kanala dauka Telegramen: t.me/altxaburuamendaro

SAKELAKO TELEFONORIK GABEKO ARNASGUNEAK GERO ETA GEHIAGO DIRA ELGOIBARREN

Duela urtebete sortu zuten Elgoibar Amatau Mobila taldea Elgoibarren LH6ko guraso batzuek eta sei bat hilabete geroago elkarte osatu zuen Elgoibarko guraso talde batek, Altxa Burua sarearen baitan. Bi helbururekin elkartu ziren: nerabeei sakelako telefono adimenduna ematea ahal den gehien atzeratzea, eta gailu horien erabilera egoki bat egiten irakastea. Geroztik buru-belarri ari dira herri kontzientzia lantzen eta sareak eraikitzen. Teknologiaren erabilera egokia bultzatzeko eginahal honetan dagoeneko ibilbide bat egina duten beste zenbait herrirekin partekatzen dituzte kezka, informazioa eta esperientziak.

Altxa Burua Gipuzkoa sarera batu diren gainerako talde eta elkarten antzera, herrian eragin nahi dute, baina hemen inguruko herrietan lanean ari diren beste taldeen eskutik beti, jakitun direlako Elgoibarko gazteen harreman-sarea ere ez dela herrira mugatzen. Horregatik da garrantzitsua Mendaron ere Altxa Burua taldea sortu izana elgoibartarrentzat, eta alderantziz. Era berean, Elgoibarko Udalarekin elkarlan estua dute Elgoibar Amatau Mobila elkarteok, eta aitortu dutenez, lankidetzari ezinbestekoa ari da izaten gaur arte egin duten guztian.



Gainerako herri gehienetan moduan, Elgoibarren ere pantailen inguruko formakuntza saio bat izan zen hasierako talde eragilea sortu eta herri mailarako sare bat josiko zuen lehen talde motorraren pizgailua, eta formakuntza horiek guztiak Udalarekin batera antolatu dituzte.






Lankidetzari horri esker jarri dute martxan *Guria erabili zeinke* egitasmoa ere.

8 eta 16 urteko haur eta nerabeei zuzendutako egitasmoa da, eta adin tarte horretako artean sakelako telefonoa edo erloju mobila erabiltzeko beharra murriztea du helburu. Herriko dendarien laguntzarekin jarri dute martxan *Guria erabili zeinke egitasmoa*, izan ere dendariak dira beren establezimenduetako telefonoak erabilgarri jarri dituztenak, haurrek eta gazteek behar dutenean erabiltzeko.

Baina bestelako ekintzak ere gauzatu dituzte aurtun Elgoibar Amatau Mobila elkarteok. Hasteko, proiektuaren berri eman zuten irailean Elgoibarko ikastetxeetan, ikasturte hasierako guraso bilerak baliatuta, eta pantailak segurtasunez erabiltzeko dekalogoia ere banatu zuten [herriko dendetan eskuragarri dago]. Elgoibarko Hezkuntza Mahaian ere aurkeztu zuten taldea, eta bi inkesta ere gauzatu dituzte.

Beste familiekin batera, 2024/2025 ikasturtean zure haurrari smartphonik erosi/emateko prest zaude?

■ Bai ■ Ez ■ Zalantza



Lehen Hezkuntzako haurren gurasoek elkartearen helburuekin bat egiten ote zuten jakiteko zabaldu zuten lehenengoa, eta DBH1eko haurrek sakelako telefono adimendu propioa duten jakiteko, bigarrena. Mailaka eman dituzte emaitzak, baina bada ondorio bat nabarmentzekoa: batetik, gurasoen %80k erantzun dutela ez dutela aurreikusten seme-alabei eskuko telefono adimendunik erostea, baina bestetik, DBH1eko nerabeen %65ek telefono propioa daukatela.

AURRERA BEGIRAKOAK


Elgoibarko gaztetxoak eta haien senitartekoak teknologia berriak modu egoki batean erabiltzen trebatzeko, ezinbestekotzat jotzen dute kontzientziazioan eragitea eta gazteen eredu izan daitezkeen guztiakin elkarlanean aritzea, eta premisa horrekin antolatu dituzte esku artean dituzten gainerako ekintza eta egitasmo guztiak. Sakelako telefonorik gabeko arnasmuneak sortu nahi dituzte herrian, eta bide batez, etxeko erabilera ere zentzuzkoagoa izateko etxean mugikorrak gordetzeko kaxak egiteko tailerra antolatu dute, Gaztelekuak lagunduta. Gogoeta prozesu zabal baten baitan ulertu behar dira ekintza guztiak. Eta horretan jarraituko dute aurrerantzean ere. Formakuntza saioak, emanaldiak eta erronka gehiago antolatuko dituztela aurreratu dute, eta parte hartzera deitu dituzte Altxa Buruaren helburuekin bat egiten duten guztiak.

Elgoibar Amatau Mobila taldeak kanala dauka whatsappen <https://chat.whatsapp.com/HL5TN50bvV2HZ74D9CSEFR> eta Telegramen <https://t.me/+2H7hOKJSbJQ5MWVvK>

2024KO IRAILEAN EGINIKO GALDETEGIEN ERANTZUNAK

DBH1-eko ikasleak: Zure smarphone propioa duzu? (zuk bakarrik erabiltzen duzuna, etxean zein etxetik kanpo)

■ Bai ■ Ez



ek!

Eibarko ...eta kitzol
Euskara Elkarte
hedabidea

dkt

Debabarreneko
Komunikazio
Taldea



Lurrari lotuak

**MIRIAN ARRIZABALAGA
ETA IÑAKI ANSOLA
BARATZEZAINA ETA ARTZAINA**

Elgoibarko Mausitxa baserrian elkartu ditugu Mirian Arrizabalaga eta Iñaki Ansola baserriko jardunaz eta lehen sektoreaz berba egiteko. Bere garaian, biek ala biek erabaki zuten baserriko jardunari segida ematea eta halaxe bizi dira orain, lurrari eta eguzkiari lotuak.

Testua: Egoitz Unamuno.

Argazkiak: Gurutze Ariznabarreta.

Udazkena da, neguaren ataria. Zein lanetan diharduzue garai honetan? **Mirian Arrizabalaga:** Esango nuke kontrako bidean gaudela (barreak). Ni, berez, denboraldi gogorrena bukatzen. Udako landaketa denak garbituta, negukoak landatuta eta orain ongarrri berdeekin hastekotan.

Iñaki Ansola: Gu, guztiz kontrara. Guretzat ikasturte hasiera modukoa da. Niretzat urteko garairik gogorrena da hau eta politena ere bai; ilusio garai bat. Hasten dira arkumeak jaiotzen eta ziklo dena jartzen da martxan. Ardiez gain badauzkagu behi batzuk ere eta laster hasiko gara barrura sartzen. Horrek lana gehitzen du.

Nola antolatzen duzue eguna?

M.A.: Azaroan gaude, eguna dezente moztu du eta lurrera joateko argitasuna behar dut. Negutegietan argirik ez jartzea erabaki genuen, bestela ere nahiko ordu baditugu-eta lanerako. Beraz, garaiotan pixkat berandutxoago mugitzen gara. Egunean banaketa egitea tokatzen bada, uzta biltzen aritzen naiz, eta eguraldiak uzten baldin badu, azkenengo ereinetak egiten.

I.A.: Orduan oporrak hartzeko moduan orain, ezta?

M.A.: Hiru egun hartu ditut, oraingoz. (Barreak)

I.A.: Ni egun batean jaikitzen naiz zazpiretan eta hurrengoan goizeko bostetan. Ez dut izaten ordutegi finkorik jaikitzeko eta ezta oheratzeko ere. Goizean jaio diren arkumeak organizatzen ditugu. Arkumeren bat goseak baldin badago, esnea eman... Errapeak zaindu eta jaten eman ardiei... Kanpora atera... Oherako ere ez daukagu ordurik. Atzo gaueko hamarretarako ohean nengoen, baina goizeko ordu-



“Negutegietan argirik ez jartzea erabaki genuen, bestela ere nahiko ordu baditugu-eta lanerako”

“Oso astuna egiten zaidana da burokrazia. Azkenengo urteetan asko hazi da”

“Lurrarekiko kontaktua meditazio moduko bat ere izan daiteke momentu batzuetan”

MIRIAN ARRIZABALAGA BADIOLA ITZIAR, 1983

Doniene Haundi baserrian jaioa. Ikasketaz ingeniari teknikoa da, eta 2009an ekin zion profesionalki baratzagintza ekologikoari. Duela hamabi urtetik, Biolurreko lehendakaria da eta Amillubi proiektuko zuzendaritzako kidea ere bada.



“Niretzat urteko garairik gogorrena da hau eta politena ere bai; ilusioz betetako garai bat da”

“Erosten duen horri erakutsi behar diogu lurrari lotutako abeltzantza egiten dugula”

“Iaz, ia berrogei ardi hil zizkigun txakur batek. Tarteka etortzen zen eta hiltzen zizkigun”

IÑAKI ANSOLA SALEGI ELGOIBAR, 1984

Mausitxa baserrian jaioa. Goi mailako ziklo bat ikasi zuen Fraisoro nekazal eskolan. 2004an ekin zion artzaintzan eta gaztagintzan profesionalki lan egiteari eta harrezkero bertan dihardu.

bietarako kortan ardiekin. Gogorra izaten da, baina niretzat ilusioz betetako garai bat da. Lan askokoa, baina dotorea.

Gainerakoan, nolako ari da izaten 2024. urtea?

M.A.: Baratzerako oso txarra! Otsailean hogeitaz gutan egon ginen hamabost bat egunetan eta aurreratu zen behar ez zena. Maiatza oso hotza izan zen. Gogoratzen naiz Itziarren bost graduko goizak izan genituela. Landaketekin asmatu ezinda ibili ginen. Uda ere antzera joan da: argitasun gutxi, euri asko, lurra goxatu ezinda, landareak sufritzen... Eta uzta eskasak. Gainera, kostan nabarmenagoa izan da, euri gehiago izan dugulako. Beste urteekin alderatuta, eskasagoa izan da. Ez bakarrik Euskal Herrian. Aurten justu Britainiako baratzezain batzuekin ere harremana egin dut eta eurek ere nahiko urte eskasa izan dute. Orain negutegian ahalik eta gehien aprobeztatuko dugu espazioa, negua ahalik eta ondoen pasatu eta datorren urtea hobea izango den itxaropenarekin.

I.A.: Esaten dute ferria txarrik ez dela izaten denentzako eta nik firmatuko nuke aurtengoa moduko urte bat (barreak). Aurten eguzki oso gutxi izan da eta eduki dugu belarra ikaragarri. Kanpoak oso-oso berde egon dira, baina belar hori oso biguna izan da eta ardiek eta behiek beherakoa izan dute askotan. Baina egon da bolumena. Alde horretatik begiratu-ta, guretzako ez da izan hain urte txarra. Iazkoa okerragoa izan zen. Udaberria oso lehorra izan zen, eta ez genuen izan janik. Aurten, soberan. Makala, baina soberan.

Igartzen da azkenengo urteetan klima aldaketa. Ikusten ditugu neguak askoz ere suabeagoak direla. Urtarrilean, hogeitaz gradu eta arbolak loretan! Aurtengo uda ere oso atipikoa izan da. Badago zerbait atzetik. Animalietan ere igartzen da. Aztoramen puntu hori... Hor badago aldaketaren bat.

Ofizioa beharko da horri aurre egiteko. Zuek non ikasi duzue ofizioa?

M.A.: Nik esango nuke ia dena etxean ikasi dudala, nahiz eta ez izan ekologikoan, lurrari lotutako ekoizpena egin izan delako etxean. Horrez gain, lurra hobeto zaintzeko formazio laburrak egin izan ditugu Biolur elkartearen bitartez, Fraisoron, baina oinarria etxean jaso dut.

I.A.: Gu biok baserrian jaiotakoak gara eta ume-umetatik ikusi dugu gure aurrekoek zelan egiten zuten lan. Ondorioz, ohitura batzuk hartzen joan gara umetatik. Niri tokatu izan zait gurasoekin lan egitea eta ohitu naiz euren moduetara. Ez da erraza izaten aitari edo amari esatea 'hau horrela egin behar dugu'. Aldaketa hori nahiko konplikatu izaten da. Nahikoa

“Amillubik ilusioa piztu du”

“Baratzegintza ekologikoaren arloan Amillubi proiektua nobedade garrantzitsua izan da.

Amillubi Zestoako Iraetako erriberan dagoen baserri bat da. Lurrak erosteko aukera sortu zen eta iaz diru bilketa bat egin genuen lur horiek erosteko, batez ere, ikusten genuelako Biolurrek dituen bi helburuei erantzuten zela: alde batetik, erreleboaren gaiari, lehen sektore osoan daukagun arazo handi bati, eta bestetik, lurra bilatzeari. Aliatu dezente lortu genituen eta bailarako udalen laguntzarekin bi pertsona jardun erdiz liberatzea lortu genuen. Orain, abenduaren 1ean, beteko da urtebete proiektua plazaratu genuela. Bide onean goaz. Oraindik ez daukagu lurrak erosteko diru dena bilduta, baina gehiena bai, eta lurra erabiltzen hasita gaude: udan baratzezainok porrua egin dugu, okinek garia egin nahi dute, babarruna ere landatu genuen, baina eguraldiagatik ez da ondo joan... Asmoa da zati batean proiektu finko bat garatzea, baina zehazteko dago eraikina eta lurrak nola erabiliko diren. Normalean lehen sektoretik albiste grisak datoz eta ikusi dugu proiektu honek ilusioa piztu duela. Baditu aukerak zabaltzeko eta ilusio horri helduta goaz aurrera”.

MIRIAN ARRIZABALAGA BADIOLA

diskusio izaten dira. Nik ere oro har etxean ikasi dut baina gero ikasketak egin nituen Fraisoron, hainbat ikastaro. Ondo etortzen da ikustea besteek zer egiten duten, gutxienez jakiteko zer ez den egin behar. Munduari ireki eta ikusi zer dagoen. Makinaria aldetik, informatika aldetik, eguneratu egin gara gu ere.

Zer egiten zaizue zailena?

M.A.: Lagun batek esaten zidan: “Ez dago landaketa zailik!”. “Zaila dena da denak batera egitea”, esan nion. Batzuetan frustrantea egiten da badakigulako nola egin eta ez garelako iristen egitera. Argi daukagu eguraldiak asko eragiten digula baina horren aurka egiterik ez daukagula. Lagatzen duenean, egin dezakegu, eta ez duenean lagatzen, ez.

Oso astuna egiten zaidana da burokrazia. Azkenengo urteetan asko hazi da eta horretan jartzea asko kostatzen zait. Nik erabaki dut nire lana izatea lurrari lotua eta alde txarrak onartzen ditut, baina gero inposatzen dizkigute kanpotik beste gauza pila



bat bai edo bai ikasi behar ditugunak, eta ikusten duguna da beste ofizio batzuetan ez dituztela halako lan desberdinak egin beharrik. Esango nuke autonomo lan egiten dutenei lotuta dihoan zerbait dela.

I.A.: Nik okerren daroatena da nire eskuetatik kanpo gelditzen den hori. Adibidez, gaur hamabost egun, Gipuzkoan mingain urdin positibo bat antzeman zuten, eta orain, behartzen gaituzte ardi denak bakunatzera. Gure kasuan, pasa den astelehenean bakunatu genituen eta izan genituen hainbat aborto, hil zitzaigun ardi bat... Badakigu zein diren bakunaren ondorioak, baina ez dakigu gaitzak zer sortzen duen. Gaitza ez dugu ezagutzen. Horrelako beste hainbat gauza daude goitik agintzen dizkigutenak eta behartuta gaudenak betetzera. Beste adibide bat da Ticket Bai. Nire amak laga egin ditu lehen egiten zituen hainbat lan. Beste lan bat eta beste kostu bat gehiago. Horrek eskema denak apurtzen dizkigu.

Bestalde, aurreko urtean, oso gaizki ibili ginen txakurren gaiarekin. Gero eta txakur gehiago dago



eta nik ondo ikusten dut, baina tentuz jokatu behar da. Iaz, ia berrogei ardi hil zizkigun txakur batek. Tarteka etortzen zen eta hiltzen zizkigun. Sekulako inpotentzia sentitzen dugu. Deitu Udaltzaingora, deitu ertzainei, jarri salaketa eta erantzuten digute ardiak hobeto zaintzeko.

Badakigu gure eguneroko lana zein den, baina kanpotik datozen lanek, burokratikoek, dela mingain urdinaren gaiak, txakurrenak... Horiek sortzen didate niri kezka handiena.

Eta alderantziz, zer da gehien estimatzen duzuen?

M.A.: Berez uzta jasotzeak izan beharko luke, baina normalean bilketa ez da nire lan gogokoena izaten, aurten uzta hobeak gustura bilduko nituzkeen arren. Egunerokoan lurrarekiko kontaktua meditazio moduko bat ere izan daiteke momentu batzuetan: mugikorra alde batera laga, landareak nola dauden begira jarri... Bakardade momentu horiek.

I.A.: Bai, gure ofizioan momentu asko pasatzen ditugu bakarrik. Niri animalia artean ibiltzea asko gustatzen zait eta horrek asko betetzen nau. Arku-meak jaiotzea... Azkenengo urteetan, zortez, nahiko

ondo joan zaigu txapelketetan, eta jendeak zoriontzen gaituenean, pentsatzen dugu: "Zeozero ondo egiten dihardugu". Eskerrak!

Ondo egiteari eta kalitateari begira, zer da zuek bereziki zaintzen duzuen?

M.A.: Gure oinarria lurra zaintzea eta hobetzea da, eta gero, jatekoaren zaporea zaintzea eta jaten duguna garaikoa izatea. Haziak eta landareak lortzeko, berriz, gertuko sarea baliatzen dugu.

I.A.: Gu ez gara gai Gaztelako jendearekin bolumenean lehiatzeko eta, beraz, egin behar duguna da merkatuan bereiztu eta erosten duen horri erakutsi lurrari lotutako nekazaritza edo abeltzantza egiten dugula. Nire ustez, jende batek gero eta gehiago begiratzen dio erosten duen produktuari eta horrek ingurumenean duen eraginari.

M.A.: Nik ez dakit. Batzuetan iruditzen zait desinformazio handia dagoela, eta jendeak, amets batean bezala, uste duela edozein saltokitan topatzen dituen barazki freskoak oso kilometro gutxira ekoiztu direla, baina ez. Esango nuke jende askok ez duela pentsatu ere egiten, batez ere, barazkiei begira. Ez



dute usaintzen elikagaien industria nondik nora doan.

I.A.: Pentsatu behar dugu jaten dugunaren %15-25 bitartean ekoizten dugula hemen. Gainerakoa kanpotik dator. Eta etorri beharrean dago, bertan gero eta gutxiago sortzen dugulako.

M.A.: Hogeita bost esan duzu, baina ez dakit inork ongi kalkulatu duen, nik %4 ere entzun izan baitut.

I.A.: Jakina, ni ari nintzen haragi sektoreaz...

Zuek nola saltzen duzue? Zuzenean ala zeharkako bideak erabilia?

M.A.: Guk hiru bide ditugu. Bata, merkatua, Deban. Normalean, astean bitan joaten gara. Kontsumo taldeak ere baditugu, taldetxo bat Deban eta beste bat Eibarren, eta denda txikietan ere saltzen dugu. Herriko bi dendatan eta jatetxeren batean ere bai. Azoketara joateari utzi egin genion. Lehen igual bazen urteko uzta saltzeko leku bat, baina orain gehiago da eskaparatismoa eta guri lan handia eskatzen digu. Osteko juerga izaten da baloratuena.

I.A.: Bai, askotan feriak hala izaten dira. Jai baten parte izaten gara gu ere. Gure kasuan, azokak ematen digu aukera bezeroei produktua aurkezteko eta azaltzeko. Gainerakoan, guk saltzen dugu denda txikietan. Ehun puntutan saltzen dute gure gazta. Denda handiekin ere egiten dugu lan pixka bat,

Eroskirekin eta BMrekin. %85 saltzen dugu Gipuzkoan eta Bizkaian eta Espainian ere saltzen dugu zeozer. Etxetik bertatik ere saltzen dugu zerbait eta gero feria konkretu batzuetan: Elgoibarren abuztuan, Idiazabalen eta Mendaron maiatzean... Gehien-gehien, dendetan, baina.

Begia Debabarrenean jarrita, zelan ikusten duzue lehen sektorea bailaran?

I.A.: Ni hasi nintzenetik, uste dut joera beti izan dela negatiboa. Esango nuke gurasoen partetik jaso dugun mezua beti izan dela joan baserritik, ikasi edo hasi tailerrean lanean. Tendentzia horrek jarraitzen du gaurdaino. Sumatzen da jende gazte bat ekiteko ilusioz, baina hasierak oso zailak dira. Lurrarekin arazo handia dago, sekulako prezioa ezartzen diogulako. Elgoibarren ez da jenderik gelditzen lehen sektorean.

M.A.: Nik batzuetan esaten dut Iparraldera joatea mozkorraldi moduko bat dela, han laborari eta abeltzainek harro esaten dutelako beraien bizibidea zein den. Soldata ez da iristen funtzionario batenera, baina ez daude hain urrun gizarteko batezbestekotik. Beste egoera bat da.

I.A.: Nire ustez badago alde handi bat. Hemen gaztandegi bati eskatzen zaio Garcia Vaqueroren adinako azpiegiturak izatea. Ostera, joaten zara Iparral-



dera eta ikusten duzu artzai bat gazta egiten, txukun, txabolatxo batean eta gastu ekonomiko oso txiki batekin; berak saltzeko baime-na dauka eta guk ez. Esan behar da baita ere gure aldean askoz ere gehiago saiatzen direla borrokatzen han. Gu beti banatzen gara, eta bakoitzak bere gerra egiten du. Frantziako estatuarekin konparatuta, esango nuke oso atzera gaudela.

Instituzioei zer eskatuko zeniekete?

I.A.: Entzutea eta gure iritzia kontuan izatea, iristen direlako hainbat gai eta beti delako Europak agindu duela edo Ministerioak... Beti da goikoren batek agindu duela eta bai edo bai bete behar dugula; guk esaten dugunak ez du ezertarako balio.

M.A.: Nekazaritza ekologikoaren kasuan, existitzen garaela kontuan hartzea. Oso eremu eta zenbaki txikiak maneiatzen ditugunez, ez gaituzte kontuan hartzen. Inbertsio handietarako tendentzia egon da eta

“Azkenengo urteetan txapelketak izen ona eman digu”

Gaztagintzan markek garrantzi berezia dute, ezta?

"Idiazabalen barruan ehun eta zazpi ekoizle gaude. Gehiengo handi bat izendapen horren barruan gaude. Hor bakoitzaren markak badu bere garrantzia. Guri azkenengo urteetan txapelketak izen ona eman digu, eta horregatik, jende batek Idiazabal gazta bilatzen du, baina beste jende batek bilatzen du Mausitxa. Horrek aukera bat ematen du merkatuan posizionatzeko. Orokorrean, nahiko ongi ari gara saltzen. Iaz Idiazabal sor-marka gaztarik gabe geratu zen eta aurten ere martxa berdinean doa.

Orain jatorri izendapenaren barruan daukagu Europatik datorren lege bat. Idiazabal gaztak izan behar du Gipuzkoa, Bizkaia, Araba edo Nafarroan egina, ardi latxaren esnearekin egina eta gutxienez izan behar du bi hilabeteko ontze prozesua. Orain, horrez gain, ardi horrek jaten duenak ere lurralde horretakoa izan behar du. Denok ez dugu berdin ikusten. Artzain batzuek jo dute ekoizpen intentsibora, bolumen handiagoa ekoiztera eta ardientzako erosten duten ia jateko dena kanpotik ekartzen dute. Dira ardi batzuk ia eguzkirik ikusten ez dutenak, urteko zatirik handiena ikuilu barruan ematen dutelako. Gureak urtean zortzi hilabetez kanpoko belar hutsarekin elikatzen dira. Orain, gehienezko kopuru batzuk ezarri nahi dituzte, eta eztabaida sortu da geure artean. Ez dakit zertan amaituko den".

IÑAKI ANSOLA SALEGI



zentralizatzekoa ere bai. Ez dute baserrien galera gelditu, joera egon delako pentsatzekoa zenbat eta gutxiago eta handiagoak egon, hobe zela. Berez, tendentziak kontrakoa izan beharko luke: izan behar gara asko, eremu txikiekin edo taldetan batuta. Bakardadea bilatua bada, ederra da, baina beste aukerarik ez daukazunean, ez da hain ona. Horregatik ari dira sortzen ekoizle eta herritarren arteko formulak. **Nola ikusten duzue jarraipena epe ertain edo luzera?**

I.A.: Ni Diego Simeone modukoa naiz: partidaz partida. (Barreak)

M.A.: Aurtengo urtea oso gogorra egin zait, eta kanpoan ordu batzuk lan egiten hasi beharko nintzela pentsatzera ere iritsi naiz. Nekazaritza ekologikoan aitzindari izan zen Lapatza baserrikoak esan zidan: "Eutsi egin behar da!".

Negutegi batzuk gehiago behar ditut. Gaur egun, azaleraren %10a da negutegia. Orokorrean gutxi da eta, aukera izanez gero, beste negutegi bat jarriko nuke, eguraldi txarra egiten duen egunetan ere lan egin ahal izateko.

I.A.: Nik orain daukadanari eustearekin nahikoa lan izango dut. Gurasoak adinean aurrera doaz eta euren eskulana egiteko jendea topatzea ikaragarri kostatzen da. Gero daude hurrengo belaunaldikoak; ia horiek zer egiten duten. Ni, etxe honetan, zortzigarren

belaunaldikoa naiz eta azkena izateak ere pena emango lidake, itzelezko pena. Ni ez noa seme-alabei presiorik sartzera, baina ia eurek zer erabakitzen duten. Gainerakoan, lehengo horretan jarraitzea izango litzateke helburu printzipala.

Laburrean

Artzain ona izateko garrantzitsuena?

I.A.: Ardi onak izatea (Barreak).

Baratzezain ona izateko?

M.A.: Arreta handia jartzea.

Miresten duzue...

I.A.: Gure ardi arraza: Latxa.

M.A.: Gipuzkoan ekologikoan hasi zirenak.

Gazta mota bat?

I.A.: Gazta urdina.

Barazki bat?

M.A.: Aza.

Azoka bat?

I.A.: Elgoibarko Gabon Zaharretakoa.

M.A.: Azpeitakoa.

Erreminta bat?

I.A.: Artzain-makila.

M.A.: Labana.

Elgoibar Koloretan lehiaketa antolatu dute 'Elgoibarko Turra historikoa' ekimenaren barruan

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, *Elgoibarko Turra Historikoa* antolatu dute azaroaren 30erako ZZ NagiaKentzen taldeak eta Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika Sailak, Elgoibarko Udalarekin lankidetzan. Elgoibarko gazteen artean euskalduntasuna sustatzeko ekintzak antolatzen dituen ZZ NagiaKentzen taldeko kidea den Sarai Sagasta (Elgoibar, 2000) historialari elgoibartarrak gidatuko duen bisita gidatuarekin hasiko dute *Turra*.

Herriko historian barrena egingo duten bisita gidatua Kalegoen plazan hasiko dute, 11:30ean, eta geldialdiak egingo dituzte herriko toki esanguratsuetan, Sagastaren azalpenak entzuteko. 13:00etan bukatzea aurreikusten dute, ondoren pintxo bazkaria egingo baitute Aita Agirre Kulturgunean, 14:00etan. Aurrez, baina, Euskaraldiaren hamaikakoa aurkezteko ekitaldira joango dira. Aita Agirre Kulturgunean

aurkeztuko dute hamaikakoa, 13:00etan. Turra historikoan parte hartzeko ez da izenik eman behar; nahikoa da hasteko ordurako Kalegoen plazara agertzea.

Elgoibar Koloretan lehiaketa, arratsaldean

Egun bererako, baina arratsalderako, Elgoibar Koloretan lehiaketa antolatu dute. Elgoibarko Izarrak 2008an kaleratu zuen partxis-tribiala da Elgoibar Koloretan mahai-jokoa. Partxisa dago jokoaren oinarrian, baina fitxarekin aurrera egiteko Elgoibarren gaineko galderak asmatu behar dira. 16 eta 30 urte bitartekoek parte har dezakete lehiaketa eta zabalik dago izena emateko aukera. Banaka edo hiru lagun arteko taldeetan lehiatu ahal izango da. Aita Agirre Kulturgunean egingo dute lehiaketa, 16:00etan hasita, eta hiru sari banatuko dituzte: 200, 150 eta 100 eurokoak.

300 erraldoi txiki baino gehiago izango dira ikusgai gaur Elgoibarren zabalduko duten erakusketan



Gorka Alonsoren eta Idoia Ortegaren bildumako erraldoi txikiekin osatutako erakusketa zabalduko dute gaur Elgoibarko Kultur Etxean. 2019an ere antolatu zuten erakusketa, 185 bat alerekin, baina dagoeneko 300dik gora erraldoi txiki dituzte bilduman eta horiek dira ikusgai jarriko dituztenak. Abenduaren 5era arte egongo da ikusgai, astelehenetik zapatura, 18:30etatik 20:30era.

Manu Sanchezen argazki batek sari nagusia jaso du 'El Correo' egunkariaren argazki lehiaketan



2025eko egutegia osatzeko argazki lehiaketa antolatu du *El Correo* egunkariak, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta BBKren laguntzarekin, eta Manu Sanchez elgoibartarrak jaso du sari nagusia, Anboton egindako argazki batengatik. Hegazkin txiki batetik egindako argazkia da, airekoak beraz. Sanchezek 1.500 euroko saria jaso du. Lehiaketara aurkeztu diren argazki guztietatik hamabi apartatu ditu epaimahaiak egutegirako.

'Euskaraz izango gara' lehiaketa jarri du martxan Danobatgroupek



Euskararen Nazioarteko Egunaren harira *Euskaraz izango gara* lehiaketa antolatu du aurten ere Danobatgroup kooperatiba taldeak. Danobatgroupek lantegiak dituen herrietako herritarrei eta orokorrean gizarte osoari zuzenduta dago, eta galdera bati erantzutean datza. Honako honi, hain justu ere: *Nola du izena*

Idoia Torrealdai eta Mirari Martiarenak martxoaren 8an Danobatgruppen eskaini zuten ikuskizunak?. Danobatgruppen webgunean sartu behar da parte hartzeko eta abenduaren 3ra arteko epea egongo da galderari erantzuteko. Erantzun zuzena eman dutenen artean, Belaustegi jatetxean bi pertsonentzako bazkaria zozkatuko dute.

'Pronoia' ikuskizuna antzetzuko du Virginia Imaz klownak domekan, Mendaron

Pronoia izeneko lana antzetzuko du Virginia Imaz klownak domekan, Mendaroko San Agustin kulturgunean, 18:00etan hasita. 14 urtez gorakoentzako obra dela zehaztu dute Udaletik, eta sarrera doan izango da.

Unibertsoak jendearen alde konspiratzen duela uste duenari esaten zaio pertsona pronoikoa, eta Virginia Imazek *Pronoia* lanean gorpuzten duen Pauxa pertsonaia halakoxea da. Horregatik bere obraz dio "itxaropenaren kantua" dela, alaitasuna defendatzeko gonbit halako bat. Pauxa animoaren eragina izan nahi duen pailazo bat da obran, eta ikusleak bere gogoeta zoroen konplize eta lekuko gisa hartzen ditu. Lotura

osasungarriak kudeatzeko zailtasunari buruz dituen kezak partekatzen ditu publikoarekin, eta, aldi berean, baikorra eta pronoikoa dela adierazten du.

Proposamen ludikoa da, beraz, *Pronoia*, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna eta indarkeria sexista erreferentziatzat hartzen dituen, genero-ikuspegitik, eta umorearen bidez, kexatik eta gogogabetasunetik ateratzea proposatzen duena. Ideia bat defenditzen du Virginia Imazek obra honetan: egia dela oraindik asko dagoela egiteko justizia sozialaren eta giza eskubideen arloan, baina egia dela, era berean, urrats bakoitza ospa dezakegula egindako bideagatik.

Abenduaren 10a arteko epea dago jaiotza lehiaketan izena emateko

Jesusen jaiotza irudikatu behar da lehiaketara aurkeztutako jaiotzetan, bakoitzak nahi duen materiala erabilita, eta lanak, gehienez, 75x40 zentimetroko neurria eduki behar du. Gehienez sei laguneko taldea osatu daiteke, eta partaide berak ezingo du lan bat baino gehiago aurkeztu. Interesatuak elgoibarkojaiotzak@gmail.com

helbidera idatzita eman beharko dute izena, abenduaren 10erako. Lehiaketa bera abenduaren 15ean egingo dute, eta jaiotzak Aita Agirre kulturgunean aurkeztu beharko dira 10:00etatik 12:00etara. Lehiaketara aurkeztutako lan guztiekin erakusketa egingo dute gero, Aita Agirren, abenduaren 21etik 24ra eta 26tik 30era.

Emakume musulmanen errealitatea ezagutzera emateko hitzaldia izango da hilaren 26an

Emakume musulmanak eta jantziak: aurreiritziak murrizteko begirada bat izeneko hitzaldia emango dute Biltzen Elkartekoek azaroaren 26an (martitzena), Elgoibarko Lilan, 18:00etan hasita (gaztelaniaz izango da). Gehienez bi orduko hitzaldia izango dela aurreratu dute eta zapia erabiltzen duten emakume musulmanen errealitatea ezagutarazteko helburuarekin antolatu dutela, elkar ulertzea sustatzeko eta estigmak gutxitzeko. Hitzaldian emakume musulmanen janzkerari buruzko funtsezko alderdiak jorratuko dituzte Biltzen elkartekoek, uste okerrak desmitifikatzeko



eta jantzi horien esanahi kultural eta pertsonalak azaltzeko. Beste helburu bat ere badu, baina, hitzaldiak. Emakume musulmanek jasaten duten diskriminazioaren inguruan kontzientziatzea eta jantziek sistema patriarkalean duten zereginari buruzko hausnarketa sortzea.

Informazio gehiagorako eta izena emateko: Berdintasun Sailera deitu edo idatzi behar da: 943 741 050 (luz. 306) / berdintasuna@elgoibar.eus.

**Abenduaren 15ean Mendaron
gingo duten bertso bazkarirako
izena emateko epea zabaldu dute**



Eusebio Mugertza *Txirristaka* bertsolariaren jaiotzaren 150. urteurreneko kultur programaren baitan, Unai eta Eñaut Agirre bertsolarien saioa antolatu dute abenduaren 15erako herritar talde batek, In Leike kultur elkarteak eta Mendaroko Udalak elkarlanean. Aizpe elkartearen bazkari baten bueltan elkartu eta Agirre anaien bertso jarriez gozatzeko proposamena egin dute, eta bazkaritarako txartelak salgai jarri dituzte Morroskillo dendan, 25 euroan. Txartelak erosteko azken eguna abenduaren 7a izango da.

**Azaroaren 30ean amaitzen da
Mendaroko ipuin lehiaketarako lanak
aurkezteko epea**

Ipuin lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak LH1etik DBH4ra artekoentzat, eta azaroaren 30ean bukatzen da lanak aurkezteko epea.

Hiru maila bereiztu dituzte adinaren arabera, eta egin beharreko lana ere ezberdina da kategoria bakoitzean. LH1etik LH4ra artekoek ipuin bat ilustratu behar dute, A4 tamainako orrian, nahi duten teknika erabilita. B mailakoek, LH5etik DBH2ra artekoek, emandako ilustrazio batetik abiatu eta ipuin bat sortu beharko dute euskaraz. Gehienez bi orrialdeko ipuina izan beharko da, makinaz nahiz eskuz idatzitakoa. Azkenik, C mailakoek, DBH3 eta DBH4 mailletako ikasleek, komiki bat osatu beharko dute, euskaraz. Ipuinak eta ilustrazioak udaletxeko harreraren, ludotekan, gaztelekuan eta liburutegian jaso ahal izango dituzte.

Mendaroko udaletxean aurkeztu behar dira lanak (eskura nahiz postaz: kultura@mendaro.eus), izen-abizenak, ikastetxea, maila eta telefono zenbaki bat zehaztuta. Maila bakoitzeko irabazleak 100 euro jasoko ditu saritan eta oroigarri bana partehartzaile guztiek.

MAGIA ETA MUSIKA ESKUTIK

✍️ Ainhoa Andonegi 📷 Ainhoa Andonegi / Joserra Cabrera

Asteburu bete-betea izan zen aurrekoa Elgoibarren. Aizu Ostalariaren elkarrekin musika eta gastronomia bateratu zituen, eta eguenetik domekara bitartean hainbat ekintza izan ziren: Rockalean eta Patxangoi taldeen kalejirak, Akerbeltz eta Idoia Asurmendiren kontzertuak, eta magia ikuskizuna tabernetan. Niala magoak, bestalde, 'Mirariak' magia jaialdia antolatu zuen, eta adin guztietako jendearentzako emanaldiak izan ziren. Magia tailerra etxeko txikientzat, helduentzako magia gala eta familientzako saioa.





Euskaltel eta Laboral Kutxa txirrindulari taldeek Elgoibarren hasi dute denboraldiaurrea

Euskaltel-Euskadi eta Laboral Kutxa-Fundacion Euskadi talde profesionalak Elgoibar aukeratu dute denboraldiaurrea hasteko. Hilabete honetan, Euskadi Fundazioko bi taldeetako txirrindulariak jarduera programa batean murgilduta daude, kirol eta antolakuntza helburuen oinarriak ezartzeko eta,aldi berean, herritarrengana hurbiltzea sustatzeko. Programa horren barruan hainbat ekintza egingo dituzte, eta tartean, Euskaltel-Euskadiko bi txirrindulari herriko eskola-umeekin batu ziren joan zen astean. Ikastolako eta Herri Eskolako LH3 eta LH4koekin izan zuten solasaldia, eta haurrek kirolean behar duten diziplina eta esfortzua gertutik ezagutzeko aukera izan zuten. Aste honetan Laboral Kutxako profesionalak LH5 eta LH6koekin batu dira, eta argazkia atera dute



Lagun Taldeko txirrindulariekin udaletxean. Ekimenak, txirrindularitza gazteei hurbiltzeaz gain, gaintzearen, diziplinaren eta talde-lanaren balioak transmititu nahi ditu umeen artean.

Kirol ikastaroetako erabiltzaile kopuruak gora egin du

Urte hasieran 815 lagun zeuden Mintxetako eta Olaizaga kiroldegiko ikastaroetan izena emanda, eta orain 849 daude. Kirol Patronatutik emandako datuen arabera, 1.061 plaza eskaintzen dituzte, eta %80 beteta dago. 17 jarduerako eskaintza dago, eta 77 kirol talde daude martxan. *Elgoibar Sasoian* jarduera da arrakastatsuen 278 erabiltzaileekin, eta ondoren igeriketa, 255 parte-hartzaileekin. Body Hiit, eskalada eta K-stretch-ek 63 pertsona erakartzen dituzte, eta Pilatesek, berriz, 39.

Izena eman dutenen artean, %68 emakumeak dira, 579 guztira; eta gizonak, berriz, %32 dira, 270. Mintxetako muskulazio aretoak eta



igerilekuak, egunean batez beste 200 eta 500 erabiltzaile izaten dituzte eta Mintxetako futbol zelaia eta Olaizola eta IMH kantxek 250 eta 150 erabiltzaile hartzen dituzte egunero.

Arnora egingo du ikasturteko lehen irteera Arno Guraso Elkarteak

Domekan ekingo dio ikasturteari Arno Guraso Elkarteko mendiko taldeak, eta Arnora egingo dute lehen irteera. 09:30ean batuko dira Ikastola aurreko aparkalekuan, eta autoz joango dira Arnoatera, handik Arnoko tontorrera igotzeko. Hiru bat orduko joan-etorria izango da. Aurten,

umeek egindako tontorrak erregistratuko dituzte, eta denboraldi amaieran jasoko dute guztiek aitortza. Mendaroko Itzulitxoak egingo dute maiatzean, eta bazkari baten bueltan egingo dute jaia. Mendi talde honen helburua lagunartean elkar ezagutzuz, naturaz eta kirolaz gozatzea da.

Groenlandiara eginiko bidaia batek itxiko ditu Morkaikoren mendi emanaldiak

Morkaikok antolatutako udazkeneko mendi emanaldietan azkena izango da *Abriendo Camino Volumen 2, Expedición Groenlandia* ikus-entzunezkoa. Maialen Rojo (Gasteiz, 1997) alpinistak aurkeztuko du azaroaren 27an, Kultur Etxeko Sotoan, 19:00etan. FEDME Espainiako Federazioaren Alpinismoko Emakumeen Taldeko kideek hiru urteko teknifikazioa egin zuten taldean, eta bigarren ikasturteari amaiera emateko Groenlandiara bidaiatu zuten. Zehazki, irlako ekialdeko kostaldera, Kangertitviatsaq



eta Sangmilik fiordoan artean goratzen den Mythic Cirque mendiguneko dorreetara. Goi mailako jarduera osatu zuten han, Mythic Cirque mendiguneko eta inguruko dorreetan, eta zortzi bide zabaldu zituzten.

Elosutik Irukurutzetara ibilaldia antolatu du Morkaikok domekarako

Morkaiko Mendizale Elkarteak familian egiteko irteera antolatu du domekarako, Ikastolarekin eta Herri Eskolarekin lankidetzan. Elgoibarko mugetatik hurbil ibiliko dira oraingoan. Mintxetan batuko dira 09:30ean eta autoz egingo dute Elosura arteko bidea. Handik Pol-Polerantz abiatuko dira, eta gero Irukurutzetara. Bidean dolmen eta trikuharriak ikusteko aukera izango dute, eta baita Bizkaiko eta Gipuzkoako ingurunez gozatzeko ere. 12 kilometroko ibilbidea izango da, 400

metroko desnibel positiboarekin. Bazkalordurako Elgoibarrera itzultzeko asmoa dute.

Morkaikok, bestalde, gogorarazi du 2025erako mendian federatzeko epea zabalik dagoela. 2024an federatuta daudenei aurtengo baldintza berean egingo diete aseguru. Interesatuak mezua bidali behar dute morkaiko@morkaiko.eus helbidera, abenduaren 11rako. Federatu txartelak Goar Aholkularitzan jaso beharko dira.





Mikel Leon
inmomikel@gmail.com

747 459 343
 San Ignazio kalea 1,
 20870 Elgoibar

 [@mikel_inmobiliaria](https://www.instagram.com/mikel_inmobiliaria)

ETXEA SALGAI (BERRITUA): Bernardo Ezenarro kalean, **239.000€**






92 LAGUN KARAKATEREN KONKISTAN

✍️ Ainhoa Andonegi 📍 BARREN / Morkaiko

30. Karakateko Igoera jokatu zuten zapatuan Morkaikok antolatuta, eta Guillermo Ramos, kilometro bertikaletako Espainiako txapelduna, eta Maria Ordoñez izan ziren tontorrera iristen lehenengoak. Ramosek 27:17 denbora egin zuen, eta Iban Muruak ezarritako errekorretik minutu batera geratu zen. Maria Ordoñezek 34:57an amaitu zuen proba. Lehen elgoibartarra Iñigo Lariz izan zen gizonezkoetan 27:35 denborarekin, eta emakumezkoetan, berriz, Ainhoa Lendinez, 36:38ko denborarekin. Aurpegi onenaren saria 15 urteko partaide gazteenari eman zioten, Luken Medinari, eta irabazlearen denbora bikoitza egiten duen korrikalariaren saria Cristina Cuencak jaso zuen, 54:30 denborarekin. Argazki gehiago: barren.eus





GARAJEAK

Garaje itxia salgai, Jausoro plazan. Sarrera erraza dauka. 18 m².
626 591 658

LANA**Eskaerak**

Garbiketa lanetarako prest nago. Lanean jarduteko beharrezkoak diren formakuntzak eginak ditut. Orduka egingo nuke lan.
632 721 342

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. Asteburuetan ere bai. Esperientzia handia daukat eta erreferentzia ezin hobek. Berehala hasteko prest. 632 711 473

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia eta titulu soziosanitarioa ditut.
614 114 360

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia. 643 505 827

Adinekoak zaintzeko prest nago. Erizaintzako titulua eta titulu soziosanitarioa ditut. Esperientzia handia. 643 505 662

Zerbitzari lanetan jarduteko prest nago. 632 065 398

Adinekoak zaintzeko prest nago orduka. Esperientzia handia.
631 425 686

Adinekoak zaintzeko prest dagoen pertsona arduratsua naiz. Esperientzia handia. Etxeko langile moduan edo orduka lan egiteko prest nago. 632 708 954

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Urteetako esperientzia. Erreferentzia onak.
660 919 423

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Etxeko lanak ere egiten ditut eta baita portalak garbitu ere. 641 997 308

Adinekoak zaintzeko prest nago. Arduratsua naiz. Esperientzia. Etxeko langile moduan edo orduka egingo nuke lan. 632 708 954

Enpresa administratuzan lizentziatua lanerako prest. Digitalizazioan esperientzia handia. 642 270 746

Baserrian lan egiteko prest. Orduka edo etxeko langile moduan jarduteko prest.
632 721 342

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest nago. Esperientzia handia.
632 721 342

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. 612 540 008

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Gauzez eta asteburuetan lan egiteko prest. 641 692 366

Erizain laguntzailea naiz eta adinekoak edo ezinen bat dutenak zaintzen egin izan dut lan urteetan. Garbiketa lanetarako edota baserriko lanetarako ere prest nago. Gidabaimena eta autoa ditut. 602 834 107

Animaliak zaintzeko, garbiketarako egiteko, obran jarduteko edo adinekoak zaintzeko prest nago. 627 245 746

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. 627 340 932

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Gauzez, asteburuetan... Ospitalean ere bai. Titulua daukat eta paperak legez.
641 169 366

administradores

Consejo Universitario de Colegios de Administradores de Empresas
Euzkoako Enkainatuen Erakundearen Erakunde Komunitarioa



**ROSA Mª
PINTADO**

Etaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679

rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean urteak dira ez dugula fatxada berritzeko obrarik egin, bileretan sekula ez dugulako gai horren inguruan erabakirik hartzen eta hurrengo batean aztertze lagatzen dugulako beti. Niri iruditzen zait berritzeko premia duela fatxadak, zati batean oso hondatua dagoelako. Jakin nahiko nuke nola landu behar dugun gai hau batzarretan erabakiren bat hartu ahal izateko.


Mantentze lanak egitea komeni denetan administratzaileak presidenteari eskatu behar dio obrak lehenbailehen hasteko eta hark bizilagunei, gerta daitekeelako mantentze lanak ez egiteagatik fatxadako zatiren bat-edo jaustea. Obra egin beharraz ohartarazi arren, presidentek kasurik egingo ez balu, bera izango litzateke gerta daitekeenaren erantzule, beti ere, jakina, ohartarazpen hori egon dela baieztatuko balitz eta presidentek obra hori eginarazteko jarraitu beharreko pausoak eman ez dituela frogatuko balitz. Obra atzeratzea bizilagunek eurek erabaki badute batzarrean, bizilagunak izango dira gerta daitekeenaren erantzule.

AHOLKUA: Legeak dio ezinbestean egin behar diren obren kasuan ez dela batzarren onespenez behar aurrera egiteko. Presidentek erabakiko du egin edo ez. Hori bai, batzarrean aztertu beharko dira aurrekontu ezberdinak eta haiek aukeratu dute zein aukeratu. Obra hori egitea eskatzen duena Administrazioa denean, batzarrak ez du zeresanik izango gainan.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Peio!**
7 urte handi!
Asko maite zaitugu.



Zorionak, **amama eta Inge!** Gaur zuen eguna! Oso ondo pasa eta muxu handi bat, bereziki, Alainen partez.



Zorionak, **Edgar Anton** maitea, zure lehenengo urtebetetzean. Aitona-amona eta izeba-osaben partez.

EXPRESS ESKAINTZAK!

BRAUN 51-W1000S BIZARRA MOZTEKO MAKINA + SUDURZULOKO ILEAK MOZTEKO MAKINA

69,90 €




- Lehorrean eta bustian erabiltzea
- 3 astera arteko autonomia
- 3 lamina sentikor
- Auto Sense Teknologia
- Easy Clean sistema

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

 **DANOBATGROUP**

euskaraz IZANGO GARA

HARTU PARTE
DANOBATGROUPEN
EUSKARAREN EGUNA
OSPAZKEKO LEHIAKETAN

Sartu lehiaketaren estekan, erantzun galdera eta **irabazi** bi pertsonentzako bazkaria Belaustegi Baserrian.

PARTE HARTZEKO
AZKEN EGUNA

> 2024ko abenduak 3
00:00h

info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2024.html



22 BARIKUA

08:30 Kalejira. Elgoibar Ikastolako ikasleak kalejiran egingo dute ikastolara arteko bidea. Kalegoen plazatik abiatuko dira.

17:00-20:30 Odol ateratzeak, Mendaron. Ikastolan. Txanda hartzeko: 634 073 498

18:30 Erakusketa: Erraldoi txikiak. Abenduaren 5era arte egongo dira ikusgai. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

19:00 Kalejira, Mendaron, Bizi Poza txarangarekin. Santa Zeziliaren omenez.

23 ZAPATUA

09:30 Emakumeentzako autodefentsa tailerra. Olaizaga kiroldegian.

10:30 Dultzaineroen diana.

11:00 Bisita gidatua eta hitzaldia, Altzolan: 'Altzolatarrak San Juan bataiatzailearen parrokiaren testuinguruan'. Izena emateko: 635 753 447. Ondoren mokadutxo egingo dute.

11:30 Mural margotzea. *Indarkeria matxistaren aurka kaleak hartu* lelopean. Mendaron, frontoi atzeko hormetan.

24 DOMEKA

18:00 'Pronoia' antzezlan, Mendaroko San Agustin kulturgunean.

13:00 Udal Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian. Zuzendaria: Gorka Mujika.

1. *Campanas de la sagrada familia* (Satoshi Yagisawa).
2. *Sol de la tarde*. (B. Adam Ferrero).
3. *Dutch masters suite*. (Johan de Meij)

- *La ronda de noche* (Rembrandt)

- *Carta de amor* (Vermeer)

- *Día del Príncipe* (Steen)

4. *La gran puerta de Kiev*. (M. Moussorgsky).

14:00 Bazkari autogestionatua. Mendaron.

16:00 Filma eta kafe tertulia, Mendaron: 'Ellas hablan' filma ikusiko dute. Jubilatuen ondoko lokalean.

25 ASTELEHENA

19:00 Elkarretaratzea: Indarkeria Matxistaren kontrako eguna. Kalegoen plazan.

26 MARTITZENA

18:00 Hitzaldia: 'Emakume musulmanak eta jantziak'. Lila emakumeen etxean.

27 EGUAZTENA

15:30 'Parkinsona ezagutzen'. Deparkelek antolatuta, Elgoibarko Jubilatuen Biltokian.

18:00 Hitzaldia: 'Mugikorren auzia. Zer dugu benetan esku artean?'. Telmo Lazkano irakasle eta dibulgatzaileak emango du, Mendaroko Altza Burua Taldeak Udalarekin elkarlanean antolatuta. Udalbatza aretoa. Euskaraz.

19:00 2025eko egutegiaren argazki lehiaketako irabazleen sari banaketa. Aita Agirreko areto nagusian.

19:00 Epeletan literatur tailerra. 'Mundua pitzatuta dago... Arkaitz Canoren bizitzarekin' liburua landuko dute. Udal Liburutegian.

19:00 Morkaikoren udazkeneko mendi emanaldia. Maialen Rojok Groenlandiara egindako bidaiak izango du hizpide. Morkaikok antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

28 EGUNA

18:00 Hitzaldia: 'Mugikorren auzia. Arrisku eta irtenbideak: Nola eraiki dezakegu harreman osasuntsu bat?'. Telmo Lazkano irakasle eta dibulgatzaileak emango du, Mendaroko Altza Burua Taldeak Udalarekin elkarlanean antolatuta. Euskaraz. Udalbatza aretoan.

29 BARIKUA

18:00 Kafe tertulia: 7. artea. Loredi Salegirekin, Lilan.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Soy Nevenka'

22 barikua: 19:00
 23 zapatua: 19:00 / 22:15
 24 domeka: 19:00
 25 astelehena: 21:00

'Transformer one'

24 domeka: 16:30

'La virgen roja'
 (Ongarri zinekluba)
 27 eguaztena: 21:00

**2024ko
 botika
 ordutegiak:**

09:00-13:00 / 16:00-20:00
 GUARDIAK:
 Egunez: 09:00-22:00
 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

AZAROA

22 BARIKUA	■ Oruesagasti
23 ZAPATUA	Barrenetxea
24 DOMEKA	Barrenetxea
25 ASTELEHENA	■ Soto
26 MARTITZENA	Garitaonandia
27 EGUAZTENA	Arriola
28 EGUENA	■ Fernandez
29 BARIKUA	Yudego

2024 urte guztian, gauzez
Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
 943 204 230

■ Fernandez:	■ Soto:	■ Oruesagasti:
Herriko	Rekalde, 1	Kalebarren, 9
Enparantza,4	(Soraluze)	(Soraluze)
Garagartza	943 751 638	943 751 384
(Mendaro)		
943 756 142		

XXI.URTEURRENA

Lorea Etxabe Azkue

2003ko azaroaren 26an hil zen,30 urte zituela.



**Edur zurittan hazittako
 lore gorrixa ziñan.
 Urtu eraitten zendun
 inguruko hotza,
 eta bedarra hazi erain.**

**Ez dogu gehixago
 zure berua igarriko,
 baiña hementxe gerauko da
 zure arnasiaz aztarnia,
 botatako sustraixen gaiñian.**

Zure familia eta lagunak

Euskalki saltsa I

Anjel Ugarteburu



Janaria beharrezkoa dugu, hil ala bizikoa jaio ginenez gero, gorputzak indarrean eta sano iraungo badu. Jatetik jatera, hala ere, alde handia dago; izan ere, bizirik irauteko ezezik **gozatzeko** ere jaten dugu. Mingainak (azpiak ere bai, noski) eta aho-barrunbe osoak hartzen du parte elikapenaren zeremonian, dastamen papilak kitzikatuz. Usaimena ere partaide da; baita ikusmena bera ere. Jatea ez da eztarririk behera zakua betetze hutsa. Sukaldariak ondotoxoa dakite hori; baita gure aitita-amamek ere. Zein zapore berezia amamak prestatu eta sutan egositako lapikokoak! Maitasunezko ukitua, ongarririk ederrena.

Hizkuntzekin ere antzera gertatzen da. Elkar aditzeko, komunikatzeko, beharrezko bitartekoa dugu hizkuntza, baina alde handia dago komunikatetik komunikatzera. Hitz bakoitzak badu bere intonazio berezia: izan liteke ezta zein garratza, leuna zein zakarra, mezu adiskidetsua nahiz sumindua. Bizia zein motela. Erraz antzematen da. Entzuten duenaren jarrerak ere asko esan nahi du, ez baita berdina arreta gabe entzutea eta solaskide izatea. Dena den, erabiltzen ez den hizkuntza da denetan ezdeusena, inolako mezurik helarazten ez duena... eta horixe da gatzik gabeko hizkera ortopedikoek duten arriskua. Komunikazioa, hizkuntza biziaren gatz eta piperrez ondu ezean, tresna kamutsa, xoxoa, bilaka daiteke.

Euskalkien artean sor litekeen saltsa bizia prestatzea bururatu zait, akorduan ditudan zenbait anekdota kontatuz.

1972an Eibarko ikastolan irakasle hasi nintzenean 27 ikasleko gelatxo bat nuen neure ardurapean, han, Zezenbiden, zezen plazaren ondoko lokal batean. 7 urteko neskato-mutikoak. Hala geunden herriko lokal askotan sakabanatuta. Haien izenak ere gogoan ditut oraindik. Ilusio handiz bizi izandako unek, lekuak eta harremanak ez dira

inoiz ahazten. Euskalkiarekin ez nuen arazorik. Nik Bizkaiko euskalkia nerabilen eta Eibarren ere bertakoa zen hori. Ordurako euskara baturako zenbait urrats emanak zituen Euskaltzaindiak eta, irakasleen elkarte zein alfabetatze taldeen eraginez, neu ere euskara batuaren lerroan jarrita nengo.

- Jaso *behatza* igeri egiten dakizuenok!

Inork ez zuen jasotzen eta agindua errepikatu nuenean banaka batzuk zapatilen lokarriak soltatzeko hasi ziren. Noski! Eibarren behatzak (behe+hatzak) hanketakoak ziren. Eskuetakoak, atzamarrak (hamar+hatzak). Ez legoke txarto gaur ere berezitasun hori jasotzea.

Komunera joateko baimena eskatzea izaten zen sarritan gertatzen zena. Atea itxi eta ireki (zabaldu) ibil ez zitezenez bota nien hurrengo agindua:

- **Itxi zabalik atea!** Itxi (hertsu) ala utzi, zer egin ez zekitela geratzen ziren asko. **Itxi irekita atea** esan izan banu ere, mezuak ez zuen duda saihesten. Aire korrantea sortzen zelako - **Itxi atea!** agintzen banuen ere dudatan geratzen ziren, zabalik ala itxita utzi behar zuten ulertu ezinik. Atea zabaldu eta zarratu, ulergarriago orduan Eibarren. Zenbat horrelako gertatu ote dira zauden herriko euskararen molde eta esakerak ez jakiteagatik! Hurrengoan gehiago.



ATXUTXIAMAİKAREN

NEGUKO OPORRALDIA 2024

HH2 - LH6

Izen- ematea: azaroaren 22tik abenduaren 4ra

- On-line izena emateko: QRan
- 'www.elgoibarkoizarra.eus' webgunean
- Aurrez aurre
 - Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunearen bulegoan (Aita Agirre 3, 3 ezkerra)

izen ematea



<https://labur.eus/atxutxinegua24>

UDALAREN DIRULAGUNTZAK

Eskaerak: azaroaren 22tik abenduaren 8ra
www.elgoibar.eus-en edo H.A.Z.en
(Udalaren Herritarren Arreta Zerbitzuan)

Antolatzailea:



Babeslea:



Laguntzaileak:



Azaroak 30, larunbata:

- **ELGOIBARKO TURRA HISTORIKOA**
Turra emalea: Sarai Sagasta historialaria.
- Hasiera, 11:30ean, Kalegoen plazan.
- Pintxo-bazkaria, 14:00etan, Aita Agirre kulturgunean.
- ELGOIBAR KOLORETAN lehiaketa: 16:00etan,
Aita Agirre kulturgunean, 16-30 urtekoentzat.

- **EUSKARALDIA:**
Elgoibarko 11koaren aurkezpena.
13:00etan, Aita Agirre kulturgunean.

- **ERROMERIA,
URRATS**
taldearekin. 20:30ean,
Maalako parkean.

Euskararen Nazioarteko Eguna

Elgoibarren

Abenduak 2, astelehena:

- **HITZALDIA:** 'Euskal deituren ezaugarriak, historia eta sorrera'
Hizlaria: Mikel Gorrotxategi.
18:30ean, Aita Agirre kulturgunean.
- **EUSKAL IZEN-ABIZENAK
EUSKAL GRAFIAZ** kanpainaren hasiera:
abenduaren 2tik aurrera.

Abenduak 1, igandea:

- **EUSKELELEA:** ipuin musikatua.
(Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleen parte-hartzearekin)
16:30ean, Herriko Antzokian.
Sarrerak 5 €
Umeak/Gazte txartela/ 65 urtetik gora 3 €
herrikoantzokia.eus

Abenduak 3, asteartea:

- **ANARIren kontzertua.**
19:00etan, Herriko Antzokian.
Sarrerak 10 €
Gazte txartela/ 65 urtetik gora 3 €
herrikoantzokia.eus